# 18-02-2024




Pagomakurreko aparkalekutik (880m) Arrabarako bidea hartuko dugu, eta kilometro luzetxo bat ibili eta gero beste pista bat hartuko dugu mendebalderantz, etxe batzuetan amaitzen dena. Hemendik aurrera, bide nabarmenik gabe, Axkorriko terrazak jarraituz, Lekandako ekialdeko ertzaren oinera heldu behar gara. Puntu horretatik, harriak inguratzen duen bidexka bat bilatu behar dugu, tontorretik gertu dagoen ataka txiki batera heltzeko, eta handik tontorrera. Lekanda 1312m.



Lekandatik  hego-mendebalderantz jaisten da karstetik, Itxinan sartzeko, lehenengoz  Atxausietako pasabidearen bila, eta bertatik haitz eta pagoen arteko bidezidorretik kanpo jarraituko dugu ere pasabide hoberenen bila , Kargalekuko bidezidorrarekin lotu arte (… aukera ona zure ipar-orratzagaz praktikatzeko).



Haitz eta pagoen arteko bidezidorrak aurrera jarraitzen du, eta hainbat leize eta troka inguratzen ditu, horietako batzuk antzinean izotza lortzeko erabiltzen zirenak (Neberak) .



Gorosteta aldera joateko aukera dago, edo, luzatu nahi izanez gero, Itxingoteraino jarraitu ahal da, bertatik malda harritsu batetik Altipitatx 1171m tontorreraino heltzeko.




Itxingotera itzulita  zelai batzuk zeharkatzen dira Gorosteta aldera, eta handik, mandobideko pasalekutik itzuliko gara Arrabara, eta bertatik pista jarraituz, Pagomakurrera.

---

**Eguraldi iragarpenaPrevisión METEO** egunero gaurkoratuta.

# Compártelo:

- Click to share on WhatsApp (Opens in new window)
- Click to share on Telegram (Opens in new window)
- Click to share on Facebook (Opens in new window)
- Click to share on X (Opens in new window)
- Click to email a link to a friend (Opens in new window)

# DATU TEKNIKOAK

| | |
|---|---|
| Jarduera mota | Egun bakarreko irteera zirkularra oinez. |

| | |
|---|---|
| Kokapena | |
| Metatutako desnibela | 875m |
| Luzera | 12 km |
| Jardueraren iraupenaren aurreikuspena | |

## Elkartzeko tokia eta ordua

9:30 Pagomakurre.

## Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Pagomakurre

## Irteerarako izena emateko azken eguna

17-02-2024

## Jakin beharreko kontu teknikoak

## Prestakuntza fisiko beharrezkoa

## Material tekniko beharrezkoa

Sasoi honetarako oinetako eta arropa egokiak. Makilak. Frontala. Ura (mapa ta ipar orratza)

## Bestelako oharrak

Eguraldia eta taldearen egoeraren arabera, ibilbidea luzatu/laburtu ahal izango dugu. Ibilbidea

disfrutatzeko bidezidorretik kanpo ibiltzen ohituta egotea komeni da

## Argibide gehiago:

gailurramt@gmail.com mitxel